



Lehen luma

Kami indio txikia egiazko ehiztari bilakatuko da. Herriko aztiak, gau osoan ilargiarekin mintzatu ondoan, hauxe erran du:

– Kamik ikusiko duen lehen animalia ehizatu beharko du.

Biharamunean, Kami goizean-goiz jaikitzen da, oraino ilun delarik. Etxekoak agurtzen ditu. Bere arkua, geziak eta ehiza-labana harturik, familiaren "tipi"-tik ateratzen da. Heldu-izena emanen dion lehen luma irabazteko ordua etorri zaio.

Indio txikiak soroak zeharkatzen ditu, koioleen oihuak entzuten, bai eta xakurrak elkarri deika ere. Eguna argitzean, xoriak kantuz ari dira, banaka-banaka. Aintzira urdinaren ertzean, orein bat dago. Kamik bere baitan: "horra nik ehizatu behar dudana!".

Gezia ateratzen du geziontzitik eta arkuan ezartzen. Orduan, oreinak, adar erraldoiez apaindutako burua altxatzen du. Indio txikiari begiratzen dio, hartaz eta haren gezi ñimiñoez trufatzen ari balitz bezala. Gero, aintziran sartu eta igerika hasten da.

Kamik bere lehen luma irabazi nahi du. Horretarako, jauzi egiten du aintzirara eta luzaz igeri egiten.

Ez du ordea oreina harrapatu. Indio txikia nekatua eta hoztua da. Ezin du segitu. Oreina Kamirengana hurbiltzen da eta lepo gainera altxatzen du. Oreinak luzaz egiten du igeri, aintzira erdiko uharteraino.

Han, kanaberaz egindako sehaskan uzten du indio txikia. Kami, etzaleku idor-idor horretan lokartzen da. Iratzartzean, gose da. Inguruan begiratzen du, ea orein erraldoi eta maitagarri hartaz kanpo, ehiza txikiagorik baden ala ez. Oreinak aldiz, halako bihi urretzatu batzuk jaten ditu gosaltzeko. Kamik ez du behin ere hain lodirik ikusi. Ez daki zer den. Lurrera erori diren bihi lodi

aztia : etorkizuna edo gauza gordeen asmatzeko ahalmena duen pertsona. Sorgina.

ertzean : bazterrean, hegian.

orein : ugaztun handia, basahuntza baino handiagoa. Oinanean bizi da, taldean. Arrak adar handiak ditu.

erraldoi : izugarri handi.

kanabera : landare lastoduna, franko luzea. Leku hezeetan heldu da. Kanaberekin arraintzako hagak egin daitezke.



haietako bat dastatzen du. Bai goxoa! Irin horiz betea da. Kamik bere lagunak bezala egiten du : bihiak bildu eta jan.

30 Gosaria bukatu eta, Kamik eta oreinak aintzira urdin zabala zeharkatzen dute. Indio txikiak bere lagun berria agurtzen du eta oreinik ez duela sekulan hilen adierazteko, gezi bat hausten.

Herrira heltzen denean, denak pozten dira. Aspaldian joana zen eta aitamak urduri ziren. Zaharrak errondan jarririk daude, totemaren inguruan. Kami haien artera sartzen da. Leinuaren aitzindariak hauxe dio:

– Kami, ehizatu duzu ikusi duzun lehen animalia?

– Bai, Aitzindari Handi.

– Eta hil duzu?

40 – Ez, salbata nau.

Aitzindari Handik beltzuri egiten du:

– Ez baduzu deus ekarri, ez dezakezu lumarik eskura.

– Bihi lodi hauek ekarri dizkizuet, dio Kamik, gezioztzia huztuz.

45 Eta bere abentura kondatzen die. Bihi handiek, Kamiren hizkuntzan ARTOA dute izena. Bihituak dituztelarik, gordinik eta egosirik ere dastatzen dituzte.

Indio guziek zinez goxoa dela diote.

50 – Artoa ereinen dugu! dio Aitzindari Handik. Neguan ez dugu goserik jasanen horrela!

Gau hartan, indio herrian festa handia egiten dute. Aitzindari-Handik bere burugaineko apainduratik arrano luma bat ateratzen

dastatzen : jastatzen.

urduri : kezkatuak, arranguratuak.

leinua : familia handia. Tribua.

beltzuri : kopeta beltzean. Haserre.



du eta Kamiren ile-lokarian sartzen. Aztiak, arto hosto bat hartuz, gauza bera egiten du. Gero, hauxe erraten dio:
– Orain egiazko ehiztaria zara eta zure izena "Kami-Orein-Igelari" da.

Kami-Orein-Igelari oso pozik dago, egun berean bi luma eta zinez gustatzen zaion izena irabazi baititu.

Romain DRAC, *Xirixita 17*.
Milan Presseko Tobogganetik itzulia.

1 ULERMEN GALDEAK

- Heldu-izenaren erdiesteko zer egin behar du Kamik ?
- Nola dakizu, Kamik ez duela oreina lotsatzen ?
- Zergatik Kamik ez du gehiago oreinik hilen ?
- Zer egin du Kamik lehen lumaren irabazteko ?

2 HIZTEGIA

- Ordena alfabetikoan eman itzazu bi hitz andana hauek.

luma

orein

sehaska

erraldoi

aspaldi

kojote

gosari

indio

lur

urduuri

herri

etzaleku

ehiztari

altxatu

kanabera

trufatu

- Sinonimoak elkarlot itzazu.

gosari

■ arku

aintzira

■ ertz

arranbel

■ askari

bazter

■ laku

③ JOSKERA

- ▶ Erranaldi hauetako subjektua singularretik pluralera edo alderantziz alda ezazu. Aditzari araberako aldaketa egin iezaiozu.
 - Zaharrak errondan jarririk daude.
 - Aitamak urduri ziren.
 - Aztiak, arto hosto bat hartuz gauza bera egiten du.
 - Indio txikiak soroak zeharkatzen ditu.

④ BERRIZ IRAKUR

- ▶ Zein dira erranaldi zuzenak ?
 - Heldu-izentzat "Kami-Oren-Igelari" eman diote indio ttipiari.
 - Indio ttipiak aintziraren ondoan basurde bat ikusi du.
 - Kamik, bere lehen lumen irabazteko, ehizara joan behar du.
 - Kami indio ttipiaren aita da.
 - Oreinak bizia salbatu dio indio ttipiari.
- ▶ Bi erranaldi hauetan bat testuan dago, bestea aldiz ez.
 - Gosaria bukatu eta, Kamik eta oreinak aintzira urdin zabala zeharkatzen dute.
 - Gosaria bukatu eta, Kamik eta lagunak aintzira urdin zabala zeharkatzen dute.
- ▶ Lau erranaldi hauetatik hiruk erranahi bertsua dute. Zein ote da erranahi desberdinekoa ?
 - Gosaria bukatu eta, Kamik eta oreinak aintzira urdin zabala zeharkatzen dute.
 - Gosaria bukatu gabe, Kamik eta oreinak aintzira urdin zabala zeharkatzen dute.
 - Gosaria bukatu bezain laster, Kamik eta oreinak aintzira urdin zabala zeharkatzen dute.
 - Gosaria bukatua dutelarik, Kamik eta oreinak aintzira urdin zabala zeharkatzen dute.